

BILBO EUSKARAREN HIRIBURUA

Erronatar Inperioa bera baino zaharragoa den gure hizkuntza, ahaide ezagunik ez omen duena, eta hainbat mendenat zehar euskaldunok mundua irudikatzeko erabili duguna; hori da erakusketaren honen ardazta. Zehazkiago, euskarak berak Bilbon izan duen garrantzia eta euskarari ekarpena egin dioten pertsona eta erakundeak.

AURREKARIAK

Bilboko Uriak lotura izan estua du euskararekin, ikerketen arabera, Erdi Aroko garaietatik erabiltzen baitzuten bilbotarrek mendealdeko hizkeraren aldaera. Horren adibide dira 1596. urteko Refranes y sentencias atsoztiz liburua, bizkaieraz idatzia, edo 1653an Rafael Mikoleta bilbotarrak idatzitako gramatika: Modo breue de aprender la lengua Vizcayna. Bietan azaltzen dira Bilboko euskararen ezaugarriak.

Bilboko toponimia ere nortasun euskaldunaren adibidea da: -uri/-uri- (Uribarri, Uribitarte, Urizar, Enekuri, Atxuri...) -ola/ola- (Ametzola, Altzola, Olando, Olabeaga, Olagorta...), iturri- (Iturrizar, Iturriondo, Iturrigorri, Iturrigorribidea...), eta beste hainbat.

Hiriburuko euskara ereduari dagokionez, XIX. mende hasieran, Juan Mateo Zabala, Jose Paulo Ulibarri, Pablo Astarloa, Joan Antonio Mogel edo Pedro Antonio Añibarro bezalako intelektualek Bilboko euskararen ezaugarriak bildu zituzten. Ordurako, Pedro Novia de Salcedok Diccionario etimológico del idioma vascongado (1887) egina zeukan.

1876-1936

EUSKAL KULTURAREN PIZKUNDEA

1876ko azken Karlistaldiaren ondoren, Alderdi Liberalek ezarritako abolizio legeak eta gerrak utzitako gainbehera sozialak euskal sentimendu foruzalea areagotu zuten. Gerraosteko galerak euskal nortasuna, kultura eta hizkuntza berreskuratzeko beharra piztu zizkion galarri, eta **Euskal Pizkundea** izeneko mugimendu kulturala ekarri zuen.

Bilbok aldaketa-garaia bizi zuen, **Industrializazioak** sortutako esku-langileen premiak immigrazio handia eragin baitzuen, eta sozioekonomikoki positiboa izan zen olatuak gizarteen beharrian kultural eta ideologiko handiak eragin zituen.

Nazio-nortasuna zein kultura-egarria asetzeko baliabide ezin hobeak bilakatu ziren prentsa eta literatura, eraberritze politiko eta kultural horren testuinguruan.

1893an, Sabino Arana Bizkaitarra astekari abertzalea argitaratzen hasi zen, testu batzuk euskaraz zituela. Osorik euskaraz idatzitako **lehenengo astekariak** Resurreccion Maria Azkueren eta Ebaristo Bustintza Kirikiñoren zuzendaritzapean agertu ziren: Euskaltzale (1897-1899) eta Ibaizabal (1902-1903). Kirikiñoren gidaritzapean, Euzko JEL-Batzak Euzkadi aldzikaria argitaratu zuen, 1913tik 1937ra. Handik gutxira, 1916an Euzko-Deya agertu zen, Euzkeltzale Bazkunaren eskutik. Azken hori erbasteen ere argitaratu zen: Paris, Londres, Mexiko eta Estatu Batuetan.

Literatura indarra hartzten hasi zen (Kirikiña, Txomin Agirre...), eta folkloristek **ahozko tradizioa** berreskuratu nahi izan zuten. Jose Manterolark, R.M. Azkuek eta Aita Donostiak ekarpen handia egin zuten, herri-jakintza eta musika batu eta prestigioa emanaz.

Abertzaletasuna eta kulturaren berpizkundea eskutik helduta zihoazen. 1923an, ordea, Primo de Riveraren agintaldiaren ostean, literatura, artea, hizkuntza eta nortasunaren aldeko hainbat elkarte eta ekimen loratzen hasi ziren berriro ere. Bilbo izan zen nazionalismo politiko eta kulturaren beharretatik sortutako mugimendu horren erdigunea: **kalean eta kalerako sortua**.

Euskal artean eta letretan eklektizismoa eta Europako korronte erromantikoak nagusitu ziren, eta politikaren eta literaturaren arteko elkarrenergina nabarmen areagotu zen 1930eko hamarkadan. Poesia eta testu laburrak beharrian politikoetara eta herriaren nortasun premietara hobekien egokitutako adierazpenak bihurtu ziren.

Ezinbesteko ikusten zen **euskara irakaskuntzan** sartzea. Hala sortu ziren Bilboko lehenengo ikastolak, Errotatzutako eta Belostikalen. Emakume Abertzale Batzak eta Euzko Gaztedik 1932. urtean egindako proposamenaren ondoren, Euzko Ikastola Batza sortu zen ordura arteko guztiak batzeko.

Bilbon euskal kultura eta hizkuntzari bultzada eta ekarpena egin zioten intelektualeen artean daude, besteak beste, Manuel de la Sota, Angel Agirretxe, Julio Urkixo, Zeferino Keperin Xemein eta Kamele Errazti.

Bestalde, instituzioek **euskararekiko inplikazio maila areagotu** zuten, eta euskaraz argitaratutako materialak gorakada nabarmena egin zuen: liburuak, artikulak, irratsaioak... Itzulpengintzan ere aurrerapauso handiak eman ziren; kasurako, **Literatura Unibertsalaren klasiko handiak** euskarara ekarri zituen Joseba Altunak.

Jose Ariztimuño Aitzolen eraginez, lehen bertsolari txapelketa edo Eusko Olerti Eguna ospatu ziren. Garai horretakoak dugu euskal literaturaren loraldirik handiena, Lauaxeta, Lizardi, Orixe eta beste olerkarien lanen bidez.

EUSKAL IKASKETEN KONGRESUAK

1918 eta 1922 bitartean Euskal Ikasketen hiru kongresu egin ziren euskal kulturaren adar guztietako adituak elkartzeko eta etorkizunera bidean nola jardun erabakitzeko. Lehenengoa Oñatin 1918an egin osten sortu ziren **Eusko Ikaskuntza**, Euskal Herriko elkargune zientifiko kultural gisa, eta **Euskaltzaindia**, euskara lantzeko eta literatur hizkuntza bateratua bideratzeko.

RESURRECCION MARIA AZKUE ABERASTURI

Lekeitio 1864 - Bilbao 1951

Euskaltzaindiaren lau suten ilailetako bat izan zen, eta euskaltzainburu 1919tik 1951ra. Gure hizkuntzak izan duen eusko eskaltzale bikainenetako eta emankorrenetako bat dugu.

Hainbat arlotan jardun zuen: etnografia, hizkuntzalaritza, kazetaritza, hiztegi gintza, musika, antzerkia... Aipatzekoak dira Euskal-Izkindea (1891), Euskara-Gaztelania-Frantsesa hitzegia (1906), Euskal Kantutegi Herrikoia eta Euskal Morfologia (1925) eta Euskalerriaren Yakintza (1947).

ESTEPAN URKIAGA LAUAXETA

Laukiz 1905 - Gasteiz 1937

“Dana emon behar jako maite dan askatasunari.”

Euskal idazle eta kazetaria izan zen, Lauaxeta (“Lau Haizeetara”) ezizenaz ezaguna Euskal poesiaren iraultzailea, olerkigintza tradizioetik Europako korronte erromantikoetara egokitu zen, poeta tradizionalisten estiloarekin apurtuz. Bere obrarik aipagarrienak Bide barriak (1931) eta Arrats beran (1935) dira.

1931 eta 1936 artean, Bilbon bizi zela, euskara klaseak ematen zituen, eta Yagi-Yagi, Euzkerea, El Día, Yakintza eta Euzkadi aldzikarietan idatzi ere bai.

Politikan sutsu jardun zuen, abertzaleen alde. 1936an Euzko Gudarostean sartu zen, komandante graduatu lortuz. 1937ko ekainaren 25ean, frankisten armadak atxilotu, eta Gasteizen fusilatu zuten.

SORNE UNZUETA UTARSUS

Bilbao 1900 - Urduliz 2005

“Haize gozoak hunkitu egiten nau, baina haize-erauntsiak ez nau botako.”

Emakume euskaltzale militantea. Gaztetan euskaldundu eta idazle eta irakaslea jardun zuen.

Euzko Ikastola Batzako eta Emakume Abertzale Batzako kidea, eta emakumezkoen botoaren defendatzaile sutsua.

Hainbat aldzikaritan argitaratu zituen ipuinak, artikulak eta olerkiak, Utarsus izenpean. Bere obra idazlan guztiak (1998) izeneko liburuan bildu zen.

1936-1957

EZINA EKINEZ EGINA

1936ko gerrak aurretik bizitako garapen kulturala eten egin zuen. Gerraosteko lehen urteak latzak izan ziren, eta Francoren **diktaduraren** eraginez, euskararen bultzatze asko espeteratu eta fusilatu egin zituzten. Beste askok **erbesteak bidea** hartu zuten, eta handik jarraitu zuten euskararen alde lan egiten: Orixe, Jokin Zaitegi, Telesforo Monzón, Andima Ibiñagabeitia...

Frankismoak ezarritako mehatxuek euskara mututu zuten. Eskola-eredu frankistak euskara debekatu eta zigortu egiten zuen, eta hizkuntzak etxe barruko giroan iraun zuen bizirik, itzalpean. Elizak literaturari ezarritako **zentsura** ere aipatzekoa da, Debekatutako Liburuaren Aurkibidean euskarazko idazleak guztiz debekatuta agertzen baitziren.

Egoera horrek gure hizkuntzaren erromantizaziora eraman gintuen, eta euskara askatasunaren eta giro abertzalearen **sinbolo** bilakatu zen.

Testuinguru horretan, **Euskaltzaindia**ren eginkizuna ezinbestekoa izan zen: Krutwigek eta Azkuek erakundeari bultzada ematea lortu zuten, diktaduraren aurrean zuen egoera egonkortuz.

1950ean auzo eta barrutietako lehen **jai-batzordeak** sortu ziren. Folklorean bilakatu zen euskarari eta euskal nortasunari bultzada emateko bide bakarretako bat. **Bilboko Dindirri Dantza Taldeak** (1944) eta **Txinpartak Antzerki Taldeak** (1951), besteak beste, sekulako lana egin zuten arlo horretan. 1950eko hamarkadan, antzezlanak, argitalpenak, liburuak, bertsolarien errezitaldiak eta gainerako kultur adierazpenak berriro ernetzen hasi ziren, euskal kulturaren loraldiari atea zabalduz.

1957-1979

EUSKAL KULTURAREN LORALDIA

Diktaduran euskaraz hitz egitea ez zen erraza; batez ere esparru intimoeetan erabiltzen zen, lagun artean eta etxean. Testuinguru horretan, zentsura eta bidegabekeria horri aurre egiteko, hainbat eta hainbat lagunek euskal kulturaren eta euskal nortasunaren aldeko apustu garbia egin zuten.

Jendea elkartzeko eta jarduerak egin ahal izateko elizaren babesa izan zen sarritan aterpe bakarra. Horregatik, ikastola, aldzikari, dantza-talde, gau-eskola eta euskal kulturarekin zerikusia zuten ekintza gehienak elizaren babespean eta Elizako lokaletan erne ziren.

Sasoi horretan sortu ziren, kasurako, Bilbon **lehenengo ikastolak**. Euskarazko katekisiaren arterpean, San Nikolasen eman ziren lehenengo eskolak (1957-1958). Salaketak eraginda, lekuz aldatzen joan ziren: Iralabarrin (1958-1959), etxe pribatuetan (1960-1966), harik eta Resurreccion Maria Azkue legeztatu arte (1966-1969). Handitu beharra suertatu zenean Lauro sortu zen (1970). Bilboko ikastolen hastapenetan nabarmentzekoa da emakumeen lana, Juliana Berrojalbiz, Tere Rotaetxe eta Maria Angeles Gararena besteak beste.

Halaber, beste euskal gune bat San Anton elizaren ingurukoa izan zen, don Klaudio Gallastegi parrokoaren garizpean. Han hasi ziren **meza euskaraz** ematen, eta katekesiko material moduan hasitako **Kili-kili** (1966), ume eskoladunek idazten eta irakurtzen ikasteko komiki-aldzikaria bultzatuta Euskal Herri osoan zabaldu zen. Jose Antonio Retolaza izan zen horren buru.

Euskerazaleak elkarteak (1967) —erregistroetan jasotako euskararen aldeko lehenengo elkarte— ere lan handia egin zuen batez ere euskara irakaskuntzan sartzeko.

Bestalde, 1906. urtean Verdes familiak irekitako inprimategia eta liburudenda, 70eko hamarkadan, euskal kulturgileentzako elkargune bihurtu zen.

Goraldi horretan dantza-taldeak, abesbatzak, mendi-taldeak eta abar euskara erabiltzeko arnasguneak ziren. Eta gure hizkuntza euskaltzaleatasunaren adierazgarri zen aldetik, euskara ikasteko grina asko zabaldu zen. Orduan sortu ziren Santxutxun lehen **gau-eskolak**, Tasiozaileen artean, Joseba Arrieta, Patxi Uribarren, Martin Basterra, Joserra Etxebarria, Sotio Erkiiza eta Joseba Basterra argu ziren, besteak beste. Hari horretatik tiraka joan ziren loratzen **euskaltegiak**: Bilbo Zaharra (1973), Juan Mateo Zabala (1974), Ulibarri (1975), AEK (1976), Gabriel Aresti euskaltegia (1978) eta Zubibarri (1978).

1970ean jarri ziren martxan Labayruren Derioko Udako Euskal Ikastaroak ere, Ander Manterola, Karmelo Etxenagusia eta Mikel Zarate bultzatzaile zirela. Horri babes ofiziala emateko sortu zen Bilbon Labayru Ikastegia.

Baina euskarak beste maila bat igo zuen, Deustuko Unibertsitateak **Euskal Filologiako ikasketak** abiarazi zituenean 1976. urtean. Gotzon Garate, Mikel Zarate, Patxi Altuna, Alfonso Irigoien eta beste hainbatek jardun zuten irakasle. Euskarari beste ospe eta prestigio bat eman zioten.

Euskal kultura eta euskara bultzatzeko helburuarekin sortu ziren hainbat musika eta antzerki talde ere. Horien artean dago **Oskorri** musika-taldea, 1971. urtean sortu eta 2015era arte Euskal Herriko plaza eta aretoak bete zituen. 1976. urtean kaleratu zuten Gabriel Arestiren oroimenez izeneko lehenengo diskoak, Arestiren hainbat poema kantatu bihurtuta.

Hamarkada horretakoak da **Pott Banda** asmoz elkartu ziren Bilbo 1977. urtean, Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde, Joseba Sarrionandia, Ruper Ordorika, Jon Juaristi eta Manu Ertzillia idazleak. Hiru urte iraun zuen taldeak, eta euskal literaturaren historia iraili zuen.

Era berean, Euskaltzaindiak 1978an **Bai Euskarari** kanpainaren bukaerako ekitaldia Bilboko San Mames futbol zelaiaren inguruan egin zuen. 40.000 euskaltzale batu ziren; eta euskal abeslari eta musika talde ugari hartu zuen parte: Pantxo eta Peio, Urko, Mikel Laboa, Xabier Lete, Oskorri...

Urte berekoa da gaur egun ezagutzen dugun **Aste Nagusia** ere, Txomin Barullo konpartsa ideien lehiaketan aurkeztutako proposamenen oinarrituta. Euren burutapena izan zen, besteak beste, horretatik sortzea, eta ordutik festetako airina bihurtu dira. Gainera, jai-eredu berri horrek hasieraz-hasieratik euskara gizarteen zabalteko balio izan zuen.

Susperaldi honen zuztarrak jarri zirenean ia ez zegoen instituziorik, baina jendearen gogo biziak eta alderdi erromantikari hitsean hori gainditu zuten. Erresistentzia kultural horri eskerrak piztu zen euskal kultura hurrengo hamarkadetan.

EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindia 1919an sortu zen Oñatin egindako Euskal Ikasketen Lehen Kongresuaren ondoren, euskara 2002-2013, Bilbo Hiria Irtatia, batu eta hobetzeko helburuarekin. Lau euskaltzain aukeratu zituzten: Julio Urkixo, Koldo Eleizalde, Arturo Campion eta Resurreccion Maria Azkue. Azken hori izan zen lehen euskaltzainburua.

1936ko Gerra Zibilak etena ekarri bazuen ere, 1950eko hamarkadatik aurrera, Bilboko Erribera 6ko egoitzan euskara-eskolak ematen hasi ziren Xabier Peña, Eusebio Erkiaga eta Alfonso Irigoien. Ikastolen sorreran ere ezinbestekoa izan zen Akademia, Resurreccion Maria Azkue ikastola legeztatzeak. Horrez gain, 1958-1982 urteen artean, Alfonso Irigoienek bultzadarekin, Bizkaiko eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketak antolatu zituen.

Aurrera egin ahala, izen berriak nabarmentzen hasi ziren erakundeak: Aita Luis Villasante, Gabriel Aresti eta Federico Krutwig. Horiek euskara batueen beharra aldarrikatu zuten, eta batzarra egin zuten 1968an Arantzazun. Orduantze —finkatu ziren euskara batu sartzeko lehen pausoak. Koldo Mitxelena hizkuntzalariaren gidaritzapean prestatu ziren Arantzazuko txostenak.

Franko hil eta gutxira, 1976an, jaso zuen Euskaltzaindiak erabateko aitortpena; eta 1985ean inauguratu zuen Plaza Berriko egoitza.

MARI ANGELES GARAI

1930-2022

Bizkaiko ikastoletako lehenengoa andereñoa izan zen. Garairen ekarpenak ikasleen euskalduntzean eta euskal hezkuntza sistemaren garapenean eragin nabarmena izan zuen.

GABRIEL ARESTI SEGUROLA

1933-1975

Bilbon jaiotako euskal idazle eta poeta, euskal literaturan oso apurtzailea eta berritzailea izan zen. Literatura soziala eta hirikoa idatzi zuen, batez ere poesian, Harri eta Herri (1964) liburuan, kasurako.

1979-2000

EUSKARA LAU HAIZETARA

Aurreko hamarkadetan indarra hartu zuen gizarte-ekimenari lekukoa hartuz, **euskara erakundeetan** sartu zen. 1982an onartu zen Euskararen Legea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzako. Legearen onarpenarekin, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz ikasteko aukera ireki zen. Euskal Irrati Telebistak euskara inoiz erabili gabeen esparruetara ekarri zuen (zinema, telesailak, marrazki biziak...). Ianbide berriak sortzeaz gainera: kazetariak, esatariak, itzultzaile-egokitzailak bikoizleak, aktoreak ... Ondoak dira beste hauek ere: IYAP/HAEE, HABE, Hezkuntza Publikoaren Sarea, IRLAE edo Udaltzalea euskara berbitzua.

1980an, adibidez, **Korrika** antolatu zuen estreinakoz AEK-k, Zuk ere esan bai euskarari lelopean. Lehenengo edizio hori Oñatitik abiatu zen, eta zazpi probintziak igaro ostean, Bizkaiko hiriburua izan zuen jomuga.

Irakaskuntzan ez ezik, literaturan ere bizitasun ikargarria gertatu zen. Literatura soziala, estilo eta eredu berriak, idazle gazteak... 1978tik 1985era bitartean literatur aldzikari ugari sortu ziren han eta hemen: Poet, Ustela, Oh Euzkadi, Susa, Maltatz, Pamiela... Kontuan izan behar da aurreko urteetan indarra hartuta zeudela alfabetatzeko gau-eskola eta euskaltegiak, ikastolak sortzen hasita, eta euskara bultzatzeko gogo bizia zegoen.

1981. urtean kaleratu zuen, esate baterako, Labayru Fundazioak **Idatz & Mintz** literatur aldzikaria. Mikel Zarateren izen bereko alegia izan zen lehen aleko lehenengo testua, aldzikariari izena eman ziona.

Urte berean jaso zen **Aizu!** aldzikaria ere, euskara ikasten zebiltzanentzako tresna baliagarria izateko helburuz sortu zena. Deustuko Unibertsitateko talde txiki baten eskutik hasi zuen bere bidea, eta 1983. urtean AEKrekin bat egin, eta ordutik aurrera Koordinakundeak atera du.

Joseba Sarrionaindiaren Narrazioak (1983) eta Bernardo Atxagaren Obabakoak (1989) liburuek literaturan garai berria zabaldu zuten.

Kultur adierazpenen artean, hainbat antzerki-talde sortu ziren han-hor-hemen: Cómicos de la Legua-Kilikilariak(1969), Karraka (1980), Hortzomuga (1989) ... 1980. urtean hasi zuen **Maskarada** antzerki-taldeak ere bere ibilbidea. Euskaraz maila profesionalen jardun zuen lehenengoa taldea izan zen. Hiru lagun izan ziren hasieran: Inaki Basabe, Karlos Panera eta Marife Berrojalbiz.

Horrez gainera, bertsotan ikasteko bertsolari-eskolak sortu ziren. Hori mugarri garantzitsua izan zen bertsolaritzari aupada emateko. Lehenengoetako bat **Santutxuko Bertsolari Eskola** izan zen (1979-1980), alfabetatze-eskolen osagarri gisa, Xabier Amurizaren aholkularitzapean. Era berean, sasoi hartan hasi ziren Bilboko udalbatzaren babesean Bilboko Udaberriko eta Aste Nagusiko bertsotzaileak antolatzen.

Bilboko Udalaren **Euskara Zerbitzua** eta **Kultura Sailsa** 1985. urtean sortu ziren. Helburua Bilbo gero eta elebidunagoa izatea zen: alde batetik, kaleetan erabileria areagotzeko, eta bestetik, Udalak ele bietan modu orekatuan jarduteko.

1980ko hamarkadan, Bilbon euskararentzako arnasguneak eskuratu nahian, **Xabier Gereño** euskaldunon afariak antolatzen hasi zen. Batetik, alfatzeko geratzen ziren, eta ostean, hitzaldiak eta debateak egiten zituen. Horrez gain, euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak sortu zituzten, eta izaera eta pentsaera desberdinetako jendea elkartzea lortu zuen.

1990eko hamarkadan, **Zenbat Gara** elkarteak jarri zen abian Bilbon, euskaldunen komunitatea sendotzeko helburuz. Gabriel Aresti euskaltegiak irakasleek bultzatuta sortu zen. Handik urte batzuetara, 1995ean, zabaldu zituen ateak Bilboko **Kafe Antzokiak**, lehenengo San Vicente zinema egon zen aretoa. Hori ere irakasleen ekimenez jarri zen martxan, eta gaur egun Euskal Herriko kulturaren erreferente bilakatu da. Halaber, Zenbat gera elkarteak jarri zuen martxan Bilbo Hiria Irtatia ere (1997).

Horiez gainera, Abusu Ikastolak 1994ko maiatzaren 29an ospatu zuen bere lehen **libaldia**, Bilbon badabil, bada Bilbon zer dabil? lelopean. Helburua ikastola berri bat erailitzea izan zen.

Auzoetan euskararen aldeko bizitasunaren adierazle dira han eta hemen egiten diren aldzikariak: Zorroztako Zorroztz-Morroztz (1995), Mahatserriko Berton (1998), Deustuko Presti! (2000).

Bestalde, 1990eko hamarkada oparoa izan zen euskal musikarentzat. **Kepa Junkera** Errekaldeko trikitilariak herri-musika tradizionalari hauspoa eman zion, eta mundu osora zabaldu zuen. Aldi berean euskaldun guztiak abesten dituzten hainbat kanteren egilea da. Auzo bereko dugu **Zea Mays** (1997) euskal rock musika-taldea. Hamarkada horretan eman zituen lehen urratsak, eta urteak aurrera egin ahala euskal musikaren erreferente bilakatu da.

2000-2024

XXI. MENDEA

XXI. mendean zehar euskararen egoerak egonkortzeko joera hartu du Bilbon. Instituzioetan, hezkuntzan, osasun-sisteman eta kultura-ekimenetan normaltasunez erabiltzen da, bai eta egunerokoan ere. Denborekin, **hiztun kopuruak gora** egin du etengabe urian. Datuen arabera, 2001. urtean, 53.000 hiztun inguru zeuden; 2011n 80.000 inguru; eta, 2021ean, 104.000. Erabilera, hala ere, eragiten jarraitu beharra dago.

Horrez gainera, Bilboko biztanleriaren **beharrian soziokulturalak aldatzen** doazen bitartean, beste kultura eta jatorri batzuetako pertsona gehiago bizi dira hirian, gizarte antzagoa eratuz. Elebitasunetik eleaniztasunera igaro gara, kulturartekotasuna ardatz hartuta.

Euskarazko komunikabideak ere ugariak dira egun Bilbon: EITB, Hamaika Telebista, Euskal Herria aldzikaria (2002-2013), Bilbo Hiria Irtatia, Nartzeberri eta beste asko. Hainbat auzo eta barrutitan ere **aldizkari** eta **astekariak argitaratzen dira euskaraz**.

Dela erakundeen eraginez, dela gizarteko ekimenen bidez, gaur egun, programa asko daude **euskararen sustapena eta zabalkundea** ardatz dutenak. Adibidez, 2016an Juan Mari Aburto alkatearen ekimenez Euskararen Aholku Batzordea sortu zenetik, Udalak bultzatutakoan artean honakoak hauek daude: Biribol, merkataritzan zein ostalaritzan euskaraz sustatzeko; Loraldea euskal kulturaren festibala; Mikoleta Ipuin Lehiaketa; Harrapazank! gazteen aldizlirako programa; Euskaralidia...

XXI. mende hasieratik, **euskara maila guztietako esparruetan** txertatuta dago. Kulturari, literaturari, musikan, antzerkian, bertsolaritzan... bizi-bizirik dago. Sarean edo Bira bezalako guneetan euskal kulturak plaza ezin hobea dauka. Bestalde, Euskalduna, Campos Eliseos edo Arriaga antzokiek zein gainerako areto handiek ere **euskarazko ikuskizun eta produkzioak** eskaintzen dituzte.

Literatura arloari ekarpen emankorra egin diote hainbat idazlek: Juanra Madariaga, Lutxo Egia, Irune Urrizelki, Urzti Urrutikoetxea, Luigi Anselmi, Miren Agur Meabe, Amaia Iturbide... Musikan, euskarazko letren presentzia estillo guztietara zabaldu da. Artistak gazteen artean Ezeze, Txopet, Silitia, Nize, Pimpilinpuesio, Otoi... aipatu daitezke.

Aisialdia eta kirola arnasgune garrantzitsuak dira euskal giroari eusteko, maila profesionalen zein bestelakoetan.

Derrigorrezko **hezkuntzan** euskararen erabilera da nagusi. Eta Bilbon dauden hiru unibertsitateetan ere badauzkate ikasketak programak euskaraz. Sektore ekonomikoko arlo guztietan (merkataritza, estalaritza, industria, administrazioa...) askok jarri dituzte abian erabilera normalizatzeko planak eta ohikoak da zerbitzuak euskaraz eskaintzea. Egoera honen aurrean, zera esan daiteke: **Bilbo da euskararren hiriburua**.

BILBO EUSKARAREN HIRIBURUA